

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **31/2021 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, landa eremuan populazioari eusten laguntzeko**

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko abenduaren 15ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

31/2021 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, landa eremuan populazioari eusten laguntzeko.

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Despopulazioa munduko landa eremu ugarritan eragiten duen fenomeno da. Arabako Lurralde Historikoa ez da desberdina horretan. Despopulazioaren fenomenoari hainbat sektoretatik egin behar zaio aurre, eta zergapekoa sektore horien osagarri baino ezin da izan; izan ere, azterlan ugarririk frogatu dute zerga pizgarriak ez direla bereziki erabakigarriak, adibidez, ohiko bizilekua finkatzeko edo jarduera ekonomiko bat hasteko orduan.

Ikuspegi hori ahaztu gabe, nahitaezkoa da Arabako Lurralde Historikoan despopulazioari aurre egiteko gainerako neurriei laguntzeko neurri fiskalak hartzea.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila, landa gune txikien errealitateaz jabetuta, zerga araudian zerga pizgarriak txertatzen ari da dagoeneko, landa guneetan eta biztanleria dimentsio txikiko herrietan bizi eta/edo jarduera ekonomikoak garatu ohi dituzten zergadunei laguntzeko.

Foru arau honen xedea da biztanle dentsitate txikia duten landa guneetako zergadunentzako laguntza fiskala areagotzea, neurri horien bidez egoera hori irauli dadin.

Zerga neurri horiek aplikatuko zaizkien landa guneak zehazteko, Arabako despopulazio prozesua aztertzen eta diagnostikatzen duen azterlan demografiko bat hartu da oinarri. Azterlan hori Euskal Herriko Unibertsitateak egin du, Arabako Foru Aldundiaren enkarguz.

#### **1. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2021eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 28. artikulua 2. apartatua honela geratzen da:

“2. Zuzeneko zenbatespen erraztua erabiltzen duten enpresaburu edo profesionalek osatutako zenbait talderen kasuan, arau bereziak ezarri ahal izango dira, erregelamendu bidez, gastu kengarri jakin batzuk kuantifikatzeko, artikulua honetako 1. idatz zatiko b) letran aipatu den ehunekoa ere barne.

Foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren eremu edo guneetan kokatutako jarduera ekonomikoen kasuan, artikulua honen 1. apartatuko b) letran aipatzen den ehunekoa ehuneko 45ekoa izango da. Ehuneko hori erregelamendu bidez aldatu ahal izango da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa eremu eta gune horietan fisikoki eta modu iraunkorrean kokatuta dauden jarduera ekonomikoei baino ez zaie aplikatuko, aurrez aurre garatzen edo gauzatzen badira, eta eremu edo gune horietatik harreman zuzenean bezeroekin edo erabiltzaileekin”.

Bi. 32. artikulua 1. apartatua honela geratzen da:

“1. Kapital higiezinaren etekinak etxebizitzaren bidez lortu badira, higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoei ehuneko 20ko hobaria aplikatuko zaie. Ehuneko hori ehuneko 30ekoa izango da etxebizitza kokatuta badago foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren eremu edo guneeetako batean.

Gainera, ondokoak ken daitezke (hauexek soilik): etekinen iturri diren ondasunak edo haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesak eta finantzaketako gainerako gastuak.

Ondasun higiezin bakoitzean, hobariaren eta gastu kengarrien baturak ezin du eragin etekin garbia negatiboa izatea.

Idatz zati honetan etekin hauek soilik sar daitezke: Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan etxebizitzaren errentamendutzat jotako eragiketek sortutako etekinak”

Hiru. 77. artikulua aldatu da. Honela geratzen da:

“77. artikulua. Kuotaren murrizketa orokorra eta murrizketa despopulatzeko arriskuan dauden gunee edo eremuetan bizitzeagatik.

1. Zergadunek 1.432 euroko murrizketa aplika dezakete autolikidazio bakoitzeko kuotan, foru arau honetako 74. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gunee edo eremuetan ohiko etxebizitza duten zergadunek, aurreko apartatuan aipatzen den gutxitzeaz gain, 100 euroko beste murrizketa bat aplikatuko dute kuotaren gainean autolikidazio bakoitzeko, despopulatzeko arriskuan dauden guneeetan edo eremuetan bizitzeagatik”

Lau. 86. artikulua honela geratzen da:

“86. artikulua. Ohiko etxebizitzaren alokairuaren kenkaria.

1. Zergaldian ohiko etxebizitzaren alokairuagatik diru zenbatekoak ordaintzen dituzten zergadunek zergaldi horretan ordaindutako diru zenbatekoen ehuneko 20ko kenkaria aplikatu ahal izango dute (gehienez 1.600 euro urtean).

2. Aurreko 1. apartatuan jasotakoa gorabehera, kenkari espezifiko hauek finkatzen dira:

a) Zergaduna familia ugari baten titularra bada, aurreko 1. apartatuan jasotako kenkaria ehuneko 25ekoa izango da, 2.000 euroko kenkariaren mugarekin urtean.

b) Zergadunak 30 urte baino gutxiago badauzka, aurreko 1. apartatuan jasotako kenkaria ehuneko 30ekoa izango da, 2.400 euroko kenkariaren mugarekin urtean.

c) Ohiko etxebizitza foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gunee edo eremuetako batean duten zergadunen kasuan, aurreko 1. apartatuan jasotako kenkaria ehuneko 35ekoa izango da, 2.800 euroko kenkariaren mugarekin urtean.

3. Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko ondorioetarako, zergadunak etxebizitzaren alokairurako dirulaguntza jaso badu eta zerga honi buruzko araudiaren aplikazioaren ondorioz dirulaguntza hori salbuetsita badago, horren zenbatekoa kendu beharko da ordaindutako diru kopuruetatik.

4. Kapitulu honetan xedatzen denaren ondorioetarako, zergadunaren adina edo familia ugariaren titularitatea ezartzeko zergaren sortzapen eguneko egoerari erreparatu beharko zaio.

Artikulu honetako 2. apartatuko c) letran xedatutakoa aplikatzeko, errentaria hiltzen denean izan ezik, errentaria foru arau honetako hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gunee edo eremuetan biziko da zergaldi osoan.

5. Baterako zerga ordainketa hautatzen bada eta hainbat pertsonak badute kenkari horretarako eskubidea, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, aurreko 2. apartatuko b) letran ezartzen diren ehunekoa eta muga aplikatuko dira.

6. Baldin eta epaile batek ebazpen bidez ezartzen badu zergadunak bere kargura ordaindu behar duela familia etxebizitzaren alokairua, berak aplikatu ahal izango du artikulua honetako kenkaria autolikidazioan. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzak bidezko proportzioan aplikatuko du bere autolikidazioan, artikulua honetako 1. apartatuan ezarritako ehunekoa eta gehieneko kopuruak kontuan edukita, salbu eta hurrengo 2. apartatuan finkatutako betekizunak betetzen badituzte, kasu horretan apartatu horretan jasotako ehunekoa eta muga aplikatzeko eskubidea izango baitute."

Bost. 90.bis artikulua aldatu da. Honela geratzen da:

"90.bis artikulua. Kenkariak jarduera ekonomikoa hastearren.

1. 30 urtetik beherako zergadunek 1.000 euroko kenkaria aplikatu ahal izango dute, baldin eta jarduera ekonomiko berri bati ekiten badiote lehen aldiz, eta jarduera hori garatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak baditu.

Jarduera ekonomiko berria lehen aldiz hasten duten zergadunak bat baino gehiago badira, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria zati berdinetan banatuko da jarduera ekonomiko hori ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean egiten duten zergadun guztien artean, haien adina edozein dela ere. Kenkariaren banaketa hori egin ondoren, 30 urtetik beherako zergadunek aplikatuko dute, dagokien zatian.

2. Jarduera ekonomikoa foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gune edo eremuetako batean hasten bada, kenkaria 1.000 eurokoa izango da, lehen aldiz jarduera ekonomiko berri bat hasten duen zergadunaren adina edozein dela ere, eta jarduera hori hasten dutenen kopurua edozein dela ere.

Emakume diren zergadunek, jarduera ekonomiko hori ohikotasunez, modu pertsonalean eta zuzenean gauzatzen badute eta aurreko paragrafoan ezarritako betekizunak betetzen badituzte, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria handitu ahal izango dute 500 eurotan.

Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoa eremu eta gune horietan fisikoki eta modu iraunkorrean kokatuta dauden jarduera ekonomikoei baino ez zaie aplikatuko, aurrez aurre garatzen edo gauzatzen badira, eta eremu edo gune horietatik harreman zuzenean bezeroekin edo erabiltzaileekin.

3. Jarduera ekonomiko berri bat hasi dela jotzeko, jarduera ekonomiko berri bat agertu beharko da, modu erreal eta eraginkorren.

4. 1. paragrafoan jasotako zergadunaren adina zehazteko, zergaren sortzapen egunean da goen egoera hartuko da kontuan.

5. Aurreko 1. eta 2. apartatuetan jarritako zenbatekoraino aplikatzen ez den kenkari kopurua hurrengo eta jarraiko bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango da.

6. Artikulu honetan aipatzen den kenkaria aplikatzeko, jarduera ekonomikoa gutxienez bi urtez gauzatu beharko da, eta jarduera ekonomikoa urte osoan garatu. Beraz, ez dira hor sartuko urtaroko edo asteburuko jarduerak.

7. Kenkari hori aplikatzeko finkatutako betekizunak ez betetzeak ekarriko du behar ez bezala kendutako kopuruak eta beraien berandutza korrituak ordaindu beharra. Sartu beharreko kopuruari baldintza betetzen ez den zergaldiko kuota diferentziala gehitu behar zaio. Hala ere, zergadunak aukera izango du behar ez bezala murriztutako kopuru horiek, dagozkien berandutza korrituekin batera, aurrez ordaintzeko edozein unetan.

8. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek bere 115. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, artikuluko honetako kenkaria aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da ekitaldiko autolikidazioan zergadunak berariaz adieraztea aplikatu nahi duela”.

Sei. Xedapen gehigarri berri bat eransten da, hogeita hamalagarrena, eta honela geratzen da idatzita:

Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. Despopulazio arriskuan dauden eremuak edo gunek.

Despopulazio arriskuan dauden eremu edo gunek izango dira hauek:

DESPOPLAZIO ARRISKUAN DAGOELA JOTZEN DEN EREMU EDO GUNEA	UDALERRIAREN IZENA	KUADRILLAREN IZENA
Abetxuko (Zona rural)	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Abezia	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Acebedo	Valdegovía/Gaubea	Añana
Agiñaga	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Albeiz/Albéniz	Asparrena	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Alcedo	Lantarón	Añana
Alda	Harana/Valle de Arana	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Aletxa	Arraia-Maeztu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Aloria	Amurrio	Ayala / Aiara
Altube	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Andagoia	Kuartango	Añana
Andoin	Asparrena	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Angostina	Bernedo	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Antezana de la Ribera	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Añes	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Apellániz/Apinaiz	Arraia-Maeztu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Aprikano	Kuartango	Añana
Arenaza/Areatza	Arraia-Maeztu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Argandoña	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Arluzea	Bernedo	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Arreo	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Arriano	Kuartango	Añana
Arriola	Asparrena	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Artatza Foronda	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Artaza/Artatza	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Artxua/Archúa	Kuartango	Añana
Aspuru/Axpuru	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Astúlez/Estuliz	Valdegovía/Gaubea	Añana
Atauri	Arraia-Maeztu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Atiega/Atiaga	Añana	Añana
Bachicabo	Valdegovía/Gaubea	Añana
Baroja-Zumentu	Peñacerrada-Urizaharra	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Barriobusto/Gorrebusto	Oyón-Oion	Laguardia-Rioja Alavesa / Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Barrón	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Basabe	Valdegovía/Gaubea	Añana
Basquiñuelas	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Beluntza	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Berrostegieta	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Berrozi	Bernedo	Mendialdea
Bikuña	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Bóveda	Valdegovía/Gaubea	Añana

DESPOPLAZIO ARRISKUAN DAGOELA JOTZEN DEN EREMU EDO GUNEA	UDALERRIAREN IZENA	KUADRILLAREN IZENA
Bujanda	Campezo/Kanpezu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Caicedo de Yuso	Lantarón	Añana
Campijo	Artziniega	Ayala / Aiara
Campillar (El)	Laguardia	Laguardia-Rioja Alavesa / Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Caranca	Valdegovía/Gaubea	Añana
Castillo Sopeña	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Cicujano/Zekuiano	Arraia-Maetzu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Corro	Valdegovía/Gaubea	Añana
Dallo	Barrundia	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Diseminados de Zigoitia	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Egileor	Agurain/Salvatierra	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Escanzana	Berantevilla	Añana
Eskibel	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Estarrona	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Etxabarri-Kuartango	Kuartango	Añana
Etxaguen	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Etxegoien	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Faido/Faidu	Peñacerrada-Urizaharra	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Fresneda	Valdegovía/Gaubea	Añana
Galarreta	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Gantzaga	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Gereñu	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Gobeo	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Guillarte/Gibilloarrate	Kuartango	Añana
Guinea	Valdegovía/Gaubea	Añana
Gurendes	Valdegovía/Gaubea	Añana
Hueto Abajo/Otobarren	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Ibarguren	Asparrena	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Ibisate	Arraia-Maetzu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Igay	Erriberabeitia	Añana
Iñurrieta	Kuartango	Añana
Izartza	Bernedo	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Jauregi	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Jokano	Kuartango	Añana
Jugo	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Katadiano	Kuartango	Añana
Kintana	Bernedo	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Kontrasta	Harana/Valle de Arana	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Korres	Arraia-Maetzu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Lacervilla	Berantevilla	Añana
Lacorzana	Armiñón	Añana
Lacorzanilla	Berantevilla	Añana
Lagrán	Lagrán	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Lahoz	Valdegovía/Gaubea	Añana
Lalastra	Valdegovía/Gaubea	Añana
Landa	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Langarika	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Larrazkueta	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Leciñana de la Oca	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Leciñana del Camino/Leziñana	Lantarón	Añana
Llantenó	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara

DESPOPLAZIO ARRISKUAN DAGOELA JOTZEN DEN EREMU EDO GUNEA	UDALERRIAREN IZENA	KUADRILLAREN IZENA
Lopidana	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Loza	Peñacerrada-Urizaharra	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Lukiano	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Luna	Kuartango	Añana
Luxo/Lujo	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Luzuriaga	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Mandojana	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Marinda	Kuartango	Añana
Maroño	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Mendieta	Artziniega	Ayala / Aiara
Mendiguren	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Mezkia	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Mijancas	Berantevilla	Añana
Molinilla	Lantarón	Añana
Montoria	Peñacerrada-Urizaharra	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Morillas	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Munain	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Musitu	Arraia-Maeztu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Nanclares de Ganboa/Langara Ganboa	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Navarrete	Bernedo	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Nograrro	Valdegovía/Gaubea	Añana
Ocio	Zambrana	Añana
Oiardo	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Okariz	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Onraitia/Erroeta	Arraia-Maeztu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Orbiso	Campezo/Kanpezu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Osma	Valdegovía/Gaubea	Añana
Pipaon	Lagrán	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Portilla/Zabalate	Zambrana	Añana
Quejana/Kexaa	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Quejo	Valdegovía/Gaubea	Añana
Quintanilla	Valdegovía/Gaubea	Añana
Retes de Tudela/Erretes Tudela	Artziniega	Ayala / Aiara
Ribaguda	Erriberabeitia	Añana
Ribera	Valdegovía/Gaubea	Añana
Róitegui/Erroitegi	Arraia-Maeztu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
San Miguel	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
San Román de Campezo/Durruma Kanpezu	Bernedo	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
San Vicente de Arana/Done Bikendi Harana	Harana/Valle de Arana	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Santa Eulalia	Kuartango	Añana
Santa Koloma	Artziniega	Ayala / Aiara
Santurde	Berantevilla	Añana
Sendadiano	Kuartango	Añana
Sojoguti/Soxoguti	Artziniega	Ayala / Aiara
Soxo/Sojo	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Tobera	Berantevilla	Añana
Tortura	Kuartango	Añana
Txintxetru	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Ugalde	Okondo	Ayala / Aiara
Ullibarri-Arana/Uribarri Harana	Harana/Valle de Arana	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Urarte	Bernedo	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea

DESPOPULAZIO ARRISKUAN DAGOELA JOTZEN DEN EREMU EDO GUNEA	UDALERRIAREN IZENA	KUADRILLAREN IZENA
Urbina de Basabe	Kuartango	Añana
Uribarri Kuartango	Kuartango	Añana
Villafria	Bernedo	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Villamaderne	Valdegovía/Gaubea	Añana
Villamanca	Kuartango	Añana
Villamardones	Valdegovía/Gaubea	Añana
Villaverde	Lagrán	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Viñaspre/Binasperi	Lanciego/Lantziego	Laguardia-Rioja Alavesa / Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Virgala Mayor/Birgara Goien	Arraia-Maeztu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Virgala Menor/Birgara Barren	Arraia-Maeztu	Montaña Alavesa / Arabako Mendialdea
Zaitegi	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Zestafe	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Ziriano	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Zuaza/Zuhatza	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara

## 2. artikulua. Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko mar-txoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 43. artikuluaen Bat apartatuko c) letra aldatu da, eta aldaketak foru arau hau indarrean sartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak. Testua honela geratzen da idatzita:

“c) 1. Eskualdaketa hauek ehuneko 2,5eko zerga tasa izango dute:

– 120 metro karratu baino gehiagoko azalera eraikia ez daukaten etxebizitzak, eta aurreko b) letran aipatutako garajeak eta eranskinak.

– 120 metro karratu baino gehiagoko azalera eraikia ez daukaten familia bakarreko etxebizitzak eta lurzatiaren azalera, eraikinak okupatutakoa barne, baldin eta eraikina dagoen lurzatiak ez badauzka 300 metro karratu baino gehiago.

c) letra honen ondorioetarako, familia bakarreko etxebizitzatzat joko da sarrera independentea daukana; eraikin bakarra izan daiteke, bikoia, itsatsia edo lerrokoa, baina inolaz ere ez talde eraikina.

2. Honako eskualdaketa hauek ere 2,5eko zerga tasa izango dute, eskuratzaila familia ugariaren titularra izanez gero:

– Aurreko b) letran aipatutako etxebizitzak, garajeak eta eranskinak.

– Familia bakarreko etxebizitzak.

c) letra honetan aipatzen den ehuneko 2,5eko tasa aplikatzeko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

1. Eskuratzailak ezin du eduki beste etxebizitza baten jabetzaren ehuneko 25 baino gehiago eskuratu nahi den etxebizitza kokatuta dagoen udalerrri berean.

2. Etxebizitza eskuratzailaren ohiko bizileku gisa erabiltzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatzeko arauetan aipatzen den moduan.

2. zenbaki honetan jasotako betekizuna betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa hamabi hilabeteko epean aurkeztu beharko da, etxebizitza erosten denetik zenbatzen hasita. Betekizun hori betetzen dela egiaztatzeko, zuzenbidean onartutako frogabideak erabili ahal izango dira.

3. Eskuratzeko agirian adieraztea letra honetan adierazitako betekizunak betetzen direla edo beteko direla.

Letra honetan xedatutakoa aplikatzeko, azalera eraikia fatxadetan lerro perimetralen (kanpokoak zein barrukoak) eta mehelinen ardatzen barnean dagoena da.

Estalita dauden hegalkinak, balkoiak edo zabaltzak eraikitako azaleraren parte dira, alboetan hormek mugatzen badituzte; bestela, azaleraren ehuneko 50 besterik ez da kontuan hartuko, modu berean neurtuta.

c) letran aipatutako azalera eraikiaren barruan inolaz ere ez da zenbatu behar erkidegoaren elementuen zati proportzionalaren azalera.

3. Ehuneko 1,5eko zerga tasa izango dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauaren hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gunee edo eremuetan kokatuta dauden etxebizitzak eskualdaketa hauek:

- Aurreko b) letran aipatutako etxebizitzak, garajeak eta eranskinak.
- Familia bakarreko etxebizitzak.

Ehuneko 1,5eko tasa hori aplikatzeko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

1. Eskuratzailak ezin du eduki beste etxebizitza baten jabetzaren ehuneko 25 baino gehiago eskuratu nahi den etxebizitza kokatuta dagoen udalerrri berean.

2. Etxebizitza eskuratzailaren ohiko bizileku gisa erabiltzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatzeko arauetan aipatzen den moduan.

2. zenbaki honetan jasotako betekizuna betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa hamabi hilabeteko epean aurkeztu beharko da, etxebizitza erosten denetik zenbatzen hasita. Betekizun hori betetzen dela egiaztatzeko, zuzenbidean onartutako frogabideak erabili ahal izango dira.

3. Eskuratzeko agirian adieraztea betekizun horiek betetzen direla edo beteko direla”

### **3. artikulua. Ondasun higiezinaren gaineko zerga**

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 15. artikuluko 6. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da (aldaketak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“6. Ordenantza fiskalek zergaren kuotaren ehuneko 90erainoko hobaria arautu ahal izango dute udalerriko eremu edo zonetan kokatutako hiri ondasun higiezinaren alde, baldin eta, hirigintza legeriaren eta plangintzaren arabera, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo antzeko jardueren primarioen lotura edo nagusitasunagatik bereizitako biztanle kokalekuei badagozkie eta bertan tinkotutako eremu edo guneeetan dagoena baino udal eskumeneko zerbitzuen, azpiegitura edo ekipamendu kolektiboen maila baxuagoa badute, baldin eta haren ezaugarri ekonomikoek babes berezi bat gomendatzen badute. Ordenantza fiskalean zehaztutako biztanleguneen, eremuen edo guneen ezaugarri bereziak eta eremua, bai eta hoberi hori aplikatzeko beharrezkoak diren eraikuntzen eta lurzoruaren erabileren tipologiak, haren iraupena, urteko zenbatekoa eta gainerako funtsezko alderdiak eta alderdi formalak ere.

Era berean, ordenantza fiskalek zergaren kuotaren ehuneko 90erainoko hobaria arautu ahal izango dute zergadunaren ohiko etxebizitzarako erabiltzen diren hiri ondasun higiezinaren alde, bai eta jarduera ekonomikoa garatzen den lokalen alde ere, eranskinak eta biltegiak barne, betiere jardueren ekonomiko hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauaren hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gunee edo eremuetan fisikoki eta modu iraunkorrean kokatuta badago eta jardueren ekonomikoak aurrez aurre garatzen edo gauzatzen badira, eta eremu edo gunee horietatik harreman zuzenean bezeroekin edo erabiltzaileekin”

### **4. artikulua. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga**

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 45/1989 Foru Arauaren 4. artikuluko 3. apartatuari letra bat gehitzen zaio, f) letra, eta honela geratzen da (aldaketak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):



“f) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren hogeita hamalaugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren eremu edo guneeetan kokatutako higiezinetan eraikuntzen, instalazioen edo obren aldeko ehuneko 95erainoko hobaria.

Aurreko letretako hobariak aplikatuta baldin badira, letra honetako hobaria aurreko horiek aplikatu ondoren ateratzen den kuotari ezarriko zaio”.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Ordenantza fiskalak egokitzeko epea.

Toki erakundeek 2022ko ekainaren 30era arteko epea izango dute zerga ordenantzetan behar diren aldaketak egiteko, arautegia foru agindu honetan ezarritakora moldatzeko.

Bigarrena. Toki ogasunen testu bateginak.

Foru arau honen edukia, hala badagokio, doikuntza teknikoaren bidez erantsiko zaie toki ogasunei buruz Batzar Nagusiek onar ditzaketen testu bateratu berriei.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta bere artikulatua adierazitako egunetatik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 15a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**